

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILOPE

265

2019ko ilbeltza

TOKIKOM

notan  
PRES

DENON BEGI-BISTAN  
ETA INORK IKUSI EZ!


## AMAZABAL INSTITUTUA ERREFERENTZIA ZENTRO BIHUR DAITEKE

Urte asko pasa dira gure ibarrean Lekunberriko Ibarberri ikastetxearen erreferentzia zentroa Amazabal Institutura aldatzearen aldeko dinamika piztu zenetik. Aldaketa horren aldeko Plataforma ere sortu genuen, eta hainbat ekimen bultzatu ere bai: bilera irekiak antolatu genituen ikastetxeko gurasoei informazioa eman genien, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Mahaian agerraldia egin genuen, Arartekoaren aldekotasuna lortu genuen... Gaur egun, familien %90 baino gehiagok Leitzako Institutua hautatzen dute derrigorrezko ikasketak bukatzeko. Azken hilabeteetan, gurasoen artean albiste bat baino gehiago jaso dugu gaiaren inguruan eta berriz antolatzeari ekin diogu erreferentzia zentroa Amazabal institutua bihurtu dadin. Azken urteetan gurasoek harturiko erabakien ondoren eta egindako lanaren ondoren, ondorioak etorri dira eta itxaropentsu egoteko arrazoiak ditugu. Nafarroako Gobernuak Eskola Maparen Foru Dekretua berritzeko prozedura martxan dauka gaur egungo errealitatera egokitu eta eguneratzeko, tokian-tokian dauden espazioak, instalazioak eta heziketa-zerbitzuak ahalik eta egokiena erabiltzeko edo hizkuntza-egoera eta errealitate sozio-geografiakoen antolakuntzari logikaz erantzuteko. Eta gure informazioen arabera, proposamen berrian Ibarberri eskolaren erreferentzia zentroa aldatu egingo dela aurreikusten da: badirudi, Biurdana izan beharrean, gure eskualdean dagoen Institutua izango dela, hau da, Leitzako Amazabal.

Aldaketa hau gauzatzen bada, gure ibarrari onura handiak ekarriko dizkio: Derrigorrezko Hezkuntzako garraioa Nafarroako Gobernuak ordainduko die familien %90i (Leitzara doazenei), eta horrek asko arinduko du Larraungo eta Lekunberriko udalek orain arte egin duten gastu ekonomikoa (2018/19 ikasturtean, 40.000€ aurreztu ahal izango zituzketen bi udalek aldaketa horrekin); gure haraneko familiek eskolako jantokia diruz lagunduta izango dute, eta ikasturte eta ikasle bakoitzeko 500€ inguru aurreztuko dute; Iruñea alderako garraioa ere bermatuta egongo da, Larraun eta Lekunberriko udalek horretarako hitzarmen bat sinatu dutelako.

Aldaketa hau gauzatuko delakoan gaude, eta gu jadanik martxan gaude hurrengo hilabeteetan aldaketa bultzatzeko. Eskaera historiko bat konpontzeko tenorean gaudela uste dugu, eta eskola komunitate guztia pozik utziko duen aukera bilatzea izango da helburua.

Amazabal Institutuaren Aldeko Plataforma



Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



06



12



23

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Igor Mitxaus.

06 ELKARRIZKETA: Jone Gabari.

09 NOR DA NOR

11 KUXKUXEAN: Ilbeltzeko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Lezaetako galtzinlabea.

19 KULTURA

23 KIROLA

24 ELKARRIZKETATXOA

27 KLIK EGIN

30 HITZ ASPERTUAN

31 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Jone Gabari, Aner Ansorena, Mendialdea Mankomunitatea, Inma Etxarri, Isabel Huarte, Juanjo Zubieta, Iñigo Oreja, Andoni Tolosa, Agustin Saralegi eta Arantza Jiménez.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.


Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

## Berdinbidean

Ibarberri ikastetxeko 1. mailako ikasleak Nafarroako Hezkuntza Departamentuko *Skolae* izeneko programan parte hartzen hasi gara. Beste jarduera batzuen artean, eskola batean patio berri bat egin behar zutela imajinatu behar izan dugu. Taldeka bertan jostatzeko lau jostailu aukeratu ditugu eta beste bat debekatua izateko. Bestetik, bakarka gure txoririk kuttunena nolakoa izango litzatekeen pentsatu eta marraztu dugu.

1. maila A taldeko ikasleak.



eskolatik  
mailopera



**ASEGURU  
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna  
babesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



## BERRI TXARRAK

25 urte igaro eta gero Berri Txarrak taldeak, bere ibilbidea etetea erabaki du. Baina aurretik 2019an zehar kontzertuz betetako bira eskainiko du. Joan den hilean berria eman eta egun gutxitara iragarri zuen taldeak azaroaren 23an bere azken kontzertua eskainiko zuela Nafarroa Arenan eta dagoeneko sarrera guztiak agorturik daude.



## MUSEAN

Horra hor aurtengo Lekunberriko San Juan Jubilatuko Elkarteko Mus eta Seiko Txapelketako saridunak. Joan den abenduaren 7an txapelketari behar bezalako amaiera emateko bazkaria egin zuten. Zorionak!



## SARIAZ GOZATZEN!

Aurtengo Baraibarko festetako pintxo lehiaketako irabazlea izan zen Mertxe Iriarte. Joan den hilean bere sariaz gozatzeko aukera izan zuen eta bere bikotekidea den Patxi Galarzarekin batera Lekunberriko Epeleta jatetxean izan zen.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Igor Mitxaus (Lekunberri)

**San Martinakin** bukatu dira  
**inguruko jai guztiak,**  
ez du inporta gero ta ordu  
gehio ditu eguzkiak,  
bizitzan daude egun mugitu  
ta baita ere eztiak,  
inork ez luke ongi pasteko  
sortu behar aitzakiak.

Esan bezala disfrutatzen  
beti aukerarik **bada**  
norberak jarri behar izaten  
baitu gogo ta **algara,**  
beti nahi dugu jende mordoa  
edo bestela **lotara,**  
garrantzitsuena osasuna  
eta umore ona **da.**

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago.



**Beaxarentzako oina:**  
Axier zer eskatu diozu  
urte berriari

**Puntuak:**  
Ekin, alde egin, fin, zeregin.

# “Euskaraz komunikatzea da helburua eta hori akatsekin ere lortu liteke”

*Txantrearra izan arren, txiki-txikitatik izan du Larraunekin harremana Jone Gabarik. Larraundarrak eta euskal hiztunak zituen bi amonak, baina bi belaunaldiren ondoren ia galdu egin zen euskara Joneren etxean. Oso gaztetatik euskaraz bizitzeko grina izan du ordea. Euskara ikasle izatetik AEK euskaltegiko irakasle izatera pasa da Jone, nahiz eta onartu ikasketa prozesua etengabea den.*

## **Iruñean bizi izan zara urte askoan Jone...**

Bai, Txantrean bizi ginen. Baina jada badira hamar urte Lekunberrin bizi naizela. Aita Lekunberrikoa da, hemen bizi izan zen Gabari etxean. Eta amaren ama berriz astiztarra zen, Angelita Juanena.

## **Eta zure haurtzaroan etxean euskaraz egiten al zenuten?**

Oso gutxi. Gure amona Angelita Iruñera joan zen bizitzera eta garai hartan ia ez zekien erdaraz hitz egiten. Iruñean gaizki ikusita zegoen euskara. Bertan ikasi omen zuen erdaraz. Eta ondorengo belaunaldian, galdu egin zen euskara gure etxean.

## **Beraz, etxean erdaraz eta eskolan...**

Eskolan ere. Auzoko ikastola itxi egin

*“Euskara ulertzen nuen, baina gero, asko kostatzen zitzaidan hitz egitea”*

zuten eta amak ikastetxe publikora bidali gintuen, erdalduna zen orduan.

## **Eta noiz erabaki zenuen euskara ikasten hastea?**

Ni betidanik ibili izan naiz euskaltegi batean eta bestean euskara ikasten eta txikitatik izan dut harremana euskararekin. Amonarekin ere saiatzen nintzen euskaraz egiten. Kuadrilan ordea gehienak erdaldunak ziren eta zaila egiten zitzaidan. Baina kristoren amorrua ematen zidan nire etxean bi belaunalditan euskara galdu egin zela ikusteak.

## **Amona Angelitaren aldetik animoa ere jaso zenuen serioski ikasten hasteko, ezta?**

Bai. Bera Astizko Ixurrenekoa zen, baina beti gurekin bizi izan zen eta asko maite nuen. Berak euskara ikastera animatzen ninduen, barnetegi batera joateko edo dirua behar banuen, berak ordainduko zidala esaten zidan. Uste dut errudun sentimendua ere bazuela. Bere garaian euskara gaizki ikusia zegoen eta garai batean bere hizkuntza hitz egiteagatik lotsa sentitzera ere iritsi zen, ezkutatu egiten zen euskara, arazorik ez izateko. Baina denborarekin, uste dut bera ere konturatu zela horretaz guztiaz, eta bera zen animatzen lehena.

## **Langabezian zinela hasi zinen...**

Bai. Eskola garaian, eskolatik kanpoko jarduera gisa, euskara ikastera joaten nintzen urtero, baina beti ikasle berriak hasten zirelako edo beste arrazoiengatik ez nuen gehiegi aurreratzen. Ondoren ingeniari bat ikasi nuen eta Gasteizen masterra egin eta gero,



Euskaldunberria izanik hiru urte daramatza Jone Gabarik euskaltegian irakasle lanetan. Arg: Labrit.

Iruñeko ingeniari-tza enpresa batean ibili nintzen lanean. Oso gustura nengoen, baina krisiaren ondorioz kaleratu egin ninduten eta orduantxe esan nuen: "Hau da nire momentua!". Hori orain dela zortzi urte inguru izan zen. Ordura arte beti lanean edo ikasten nabilenez ez nuen denborarik hartzen barnetegira joateko, eta momentu hura egokia zen. Lazkaoko barnetegira joan nintzen.

### **Eta han zenbat denbora eman zenuen?**

Hasiera batean, nire asmoa hilabete pare batez probatzea zen eta bitartean curriculumak botatzen jarraitzea. Baina argi nuen momentu ona zela euskarari bultzada bat emateko. Lehenengo hilabetean oso gustura ibili nintzen eta beste hilabete batez gelditzea erabaki nuen.

### **Barnetegian 24 orduz euskaraz biziko zinen...**

Bai, bai, erabat euskaraz. Nire esperientzia oso ona izan zen, euskara ikasteaz gainera, jende asko ezagutu nuen. Aurretik euskara maite nuen, baina esperientzia hura falta zitzaidan bultzada izan zen. Nik belarria egina nuen, etxean eta inguruan euskara entzuten nuelako tarteka. Euskara ulertzen nuen, baina gero, asko kostatzen zitzaidan hitz egitea. Barnetegian hitz egitera ausartu nintzen eta izugarri aurreratu nuen. Bertan bi hilabete neramala, haurdun gelditu nintzen eta uzteko asmoa banuen ere, ongi pentsatuta: "Nora noa ni orain, krisi betean, lan bila, eta haurdun gainera?". Beraz, haurdunaldia Lazkaon pasa nuen. Haurdunaldi osoa euskara ikasten ibili nintzen.

### **Barnetegian ez duzu euskaraz egitea baino beste aukerarik...**

Bai, noski eta gainera hori zen nik betidanik nahi nuena. Orain daukadan



Lazkaoko barnetegian. Arg: Utzitakoa.

pena handiena da amonarekin euskaraz hitz egiteko aukerarik ez izatea, amona ni barnetegian nengoela hil baitzen. Pena handia hartu nuen, asko ikasten ari nintzela ikusten nuen eta nik beti nuen amona buruan. Gainera, berak zuen euskalkia oso polita zen niretzat. Nik euskara guztiz batua ikasi dut eta bere euskara askoz aberatsagoa zen. Pena daukat hori gehiago aprobetxatu ez izana.

### **Beraz, zenbat denbora eman zenuen barnetegian?**

Aneren haurdunaldi osoa bertan eman nuen eta ondoren, etxean Anerekin eta bikotekidearekin beti euskaraz egiten hasi nintzen eta oso ongi moldatzen nintzen. Ondoren, bigarren haurdunaldia iritsi zen eta berriro ere barnetegira joatea erabaki nuen.

### **Zergatik?**

Tarte horretan ez nintzen euskaltegira etortzen. Anerekin eta egunerokoan ongi moldatzen nintzen, baina ohar-tzen nintzen urduri jartzen nintzenean edo errieta egiterako orduan adibidez, ez nuela baliabide aski.

*"Izugarrizko lotsa ematen digu akatsak egiteak hemengo hizkuntza delako, baina horrekin apurtu behar dugu"*

*“Denbora hartu behar da euskaltegira edo barnetegi batera joateko eta handik kanpo ere euskarari lekua eskaintzeko”*

### **Eta berriro ere Lazkaora...**

Bai. Hain justu momentu horretan EGA azterketara aurkezteko presaketetan zebiltzan eta interesik ba ote nuen galdetu zidaten. Ez zen hori nire asmoa. Nire helburua beti euskaraz bizitzea izan da, ez titulu hori lortzea. Baina horretan zebiltzanez, ni ere prestatzen hasi nintzen. Egonaldi horren ondoren, atariko eta idatzizko azterketak egin nituen eta gero Egoi jaio zen. Ospitalean nengoela eman zidaten ahozko probaren dataren berri. Ospitaletik atera eta hiru egunera Donostiara joan nintzen Egoirekin eta nire bikotekidearekin. Titia eman eta burua proban ez beste gauzetan nuela sartu nintzen azterketa egitera. Uste dut horregatik gainditu nuela, oso lasai joan nintzelako. Ez nuen aukera galdu nahi, baina nik momentu hartan umea nuen buruan.

### **Eta euskara ikasle izatetik irakasle izatera pasa zinen...**

Bai, gero, Bea Buldainek animatuta glotodidaktika ikastaroa egin nuen. Noizbait euskaltegian irakaslerik behar bazuten ongi nentorkiela eta... Lanean nembilen bitartean ikastaroa

egin nuen, baina horretan aritzeko asmorik gabe. Egun batez, euskaltegian irakasle aritzeko proposamena egin zidaten arte. Hasiera batean, nire burua irakasle gisa ikusten ez nuen arren, gero niretzako izugarritzko erronka izan zitekeela ohartu nintzen. Betidanik maite izan dut euskara, euskaraz bizitzea lortu dut eta orain euskara erakustea erronka polita zen. Probatzera animatu nintzen eta hementxe nago geroztik.

### **Noiz hasi zinen euskaltegian lanean?**

Hau hirugarren urtea dut. Lekunberri eta Larraintzarren hasi nintzen. Geroztik euskaltegian nabil lanean, baina oraindik ere ikasten jarraitzen dut. Egunero sortzen zaizkit zalantzak, eta etorkizunean ere izango ditut. Ikasleei zerbait argitzen ez dakidanean hiztegian edo eskuliburuetan begiratzen du. Edo Beari edo gainerrako lankidei galdetzen diet eta beraiek ere ez badakite lasaiago gelditzen naiz. [Kar, kar, kar]

### **Zein gomendio emango zenioke euskara ikasi ezinik dabilen horri?**

Nahi duen guztia lortzeko gai dela esango nioke eta nahi duen hori euskara ikastea baldin bada, orduak sartu behar direla... Eta prozesua arintzeko oso baliogarriak direla telebista euskaraz ikustea, irratia euskaraz entzutea eta harremanak euskaraz edukitzea. Denbora hartu behar da euskaltegira edo barnetegi batera joateko eta handik kanpo ere euskarari lekua eskaintzeko. Euskara ez da ingelesa edo frantsesa baino zailagoa, beste hizkuntza bat da eta ikasteko denbora eskaini behar zaio eta ahal duen guztia euskaraz egin dezala. Euskaldun berrioi gertatu ohi zaiguna da lotsa sentitzen dugula. Estatu Batuetara joaten garenean, eta ingelesez hitz egin behar badugu, hangoek badakite kanpotarrak garela eta dakigun gutxiarekin ongi moldatzen gara. Eta euskaraz zergatik ez? Hemen izugarritzko lotsa ematen digu, hemengo hizkuntza delako, baina horrekin apurtu egin behar dugu. Azken batean komunikatzea da helburua, eta komunikazioa akatsekin ere lortu egiten da eta ez da ezer gertatzen.

Oraindik ere egunero sortzen zaizkio zalantzak, baina hori ez da oztopo. Arg: Labrit.





# Nor da Nor?

Aurreko alean kaleratutako argazkia Beteluko eskolan ateratakoa da.

**Ezkerretik eskuinera eta atzetik aurrera:**  
 Kontxi Lanuza, Fernando Saralegi, Jesus Mari Otermin, Javier Sotil "Lanberri", Jose Antonio Sotil "Año", Juan Miguel Zubillaga, Rosa Estanga, Jesusa Erro, Arantxa Zubillaga, M<sup>a</sup> Angeles Estanga, Reyes Yeregi, Angel Rekalde, Xabier Garmendia, Xanti Garmendia, M<sup>a</sup> Carmen Zubillaga, Juan Ignacio Elizalde, Rosa Elizalde, Kristina Buldain, Koro Otamendi, Begoña Ibañez, Martin Sotil, Sagrario Buldain, Juan Mari Otamendi eta Josetxo Buldain.

nor da nor?

# Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?  
 Non ateratakoa da?  
 Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
 ARLOETAKO HORNIGAIK  
 BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
 Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
 urzubi@hotmail.com

**TAXILON**



661 202 249  
 (9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo  
 Otamendi  
 Artola



**urrutia**  
 enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
 okindegia

**ARRIBE**



**ADIII TLF BERRIA:**

948 51 30 32



panaderia okindegia

**GALBURU eco**

*Egurrezko labore ogi ekologikoa*

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
 948 50 40 42

## *Ea noiz biltzen garen*



●● Andrea Etxarri

Aupa Mikel! Zer moduz? Eguberriak iritsi dira eta honekin batera telebistako iragarki eta spot berriak. Gure emozioetara zuzen iristeko asmoarekin, urteroko legez. Duela bi egun iragarki berri horietako bat ikusi nuen, Rua Vieja likoreek ateratakoa.

Bertan elkarren artean estimu handia zuten pertsonak elkartu zituzten (amona eta ilobak, gutxi biltzen ziren lagunak...), elkar maite zuten eta elkarren konpainiaz gozatzen zuten pertsonak azken finean. Momentu horretan, galdetzai-leak zenbatero biltzen ziren galdetzen zien, zein izan zen azken aldiz elkar ikusi zuten eguna edo momentua. Haietako askok distantzia, errutina edota ordutegiak aitzakia, nahi baino gutxiago ikusten zutela elkar onartzen zuten. Momentu horretan, INEko datuetako biziraupenaren batezbestekoa, galdetutako pertsonen adina eta beste zenbait faktore kontuan izanik, hil artera bitartean elkarrekin pasako zuten denbora kalkulatzen zieten bikote hauei. Estimazioak 6 eta 91 egun bitartekoak ziren! Datu hauek hunkigarriak izan ziren haientzat. Eta are harrigarriagoak jakinda telebista edo ordenagailuaren aurrean 6 edo 8 urte inguru pasako ditugula jakinik. Hau gutxi balitz, geroz eta pertsona gehiago ikusten ditut elkarren aurrean daudenean ere begiak mugikorrari itsatsita.

Azken 6 urteetan mugikorraren aurrean pasatzen dugun denbora hirukoiztu da, eta maite dugun pertsonakiko zuzeneko kontaktua sare sozialetara lekualdatu da hein handi batean. Rafael Santandreu psikologoak spotean esaten duen bezalaxe pertsonak adierazten dugu gure lehentasuna maite ditugun pertsonak direla, baina egiten dugun denboraren banaketak ez du berdina azaltzen. Hilezkorrek bagina bezala, zoriontsu egiten gaituen guztia egiteko aukera izango dugula pentsatzen dugu. "Ea noiz biltzen garen" mezua bidali eta tira.

Norbaiten konpainiaz gozatzen baduzu elkar zaitez orain berarekin, gainditu aitzakia. Eguberriak maite ditugunekin elkartzeko egunak badira, bihurtu ditzagun egunak eguberri.



●● Mikel Hernandorena

Aupa Andrea! Egia esan bai. Gezurra dirudi, baina benetan harrigarria da urtea nola pasa den. Eta urtea pasatzen den bezala, bizitza ere, eta tamalez, askotan zuk aipatu duzun iragarkiak dioen bezala, ez dugu edo ez dakigu gehien estimatzen ditugun pertsona horiekin denbora nahikorik igarotzen.

Lehenik eta behin, nabarmenduko nuke hainbeste teknologiek azken finean, tontotu edo lelotu egin gaituztela. Modu automatiko batean sartu gara eguneroko bizitzan. Esnatu, jaiki, mugikorra begiratu, ikasi edo lan egin, bazkaldu, mugikorra begiratu, kirola edo aisialdiko jarduerak egin, mugikorra begiratu, afaldu, mugikorra begiratu eta lotara.

Horrela egunero. Non dago, bada, hainbeste estimatzen ditugun horiekin egoteko denbora? Hainbeste teknologiarekin itsututa egon beharrean, gure ingurukoekin sare sozialetako elkarrizketa gutxiago eta zuzeneko elkarrizketa gehiago izango bagenu, hobeto joango litzaziguke. Bigarrenik, nire ustez, sare sozialetan gure emozioak adierazteko aukera hori zuzeneko egoeretara bideratzen dugunean, gero eta gehiago kostatzen zaigu, gehienbat egungo gizartean itxurakeriek benetan garenari aurre hartu diotelako. Hala, burbuila horren barne, nahiago dugu askotan sare sozialetan "zeinen zoriontsuak" garen adierazi, benetan maitatzen ditugun pertsonekin zoriontsuak izan baino. Triste da, baina inteligentzia emozional hori galtzen ari garela uste dugu. Nahiago dugu Facebooken lagunak eta lagunak izan eta sare sozialetan denbora inbertitu, benetan gure ondoan egongo diren lagun edo hurbileko jendearekin denbora inbertitu baino.

Hirugarrenik, zuk diozun bezala, askotan uste dugu hilezkorrek garela eta gure ondokoekin egoteko denbora nahikoa eta sobra izango dugula, eta ez da horrela. Bihar oso berandu izan daiteke, eta orduan konturatzen gara benetan maite dugun pertsona horiekin edo horiekin denbora gehiago eman beharko genukeela.

Iribarre gutxiago Whatsapp bidez eta algara gehiago maite dugun pertsonekin gaudenean.





**Mikel Aldareguia Mateo**  
Urtarrilaren 9an, 2 urte.  
*Zorionak eta ongi pasa zure egunean.  
Muxu haundi bat, aitaxo eta amatxoren partez.*




**Eñaut Garmendia Aristi**  
Urtarrilaren 4an, urte bat.  
*Zorionak ttiki!!!! Atte, ama ta famili guztin partez muxu pottolo bat!!!*



**Luis Urbizu** (ilbeltzak 31) eta **Enara Etxarri** (ilbeltzaren 18an, 5 urte).  
*Zorionak aittona, biok gara ilbeltzekoak! Ongi pasako dugu gure urtebetetzeetan ta bizkotxo a jango dugu (ta galleta Maria kafeakin, jeje...). Muxuak biontzat!!  
Aita, ama, Araika ta etxeko guztien partetik.*



**Unai Argiñarena Saralegi**  
Urtarrilaren 16an, 4 urte.  
*Jarraitu orain bezain alai pottoko!! Egun polit bat pasa dezazula!! Muxu haundi bat etxekoan partez.*



**Irati Oiartzabal**  
Urtarrilaren 13an, 11 urte.  
*Zorionak Irati. Ondo-ondo ospatu zure eguna. Etxekoak.*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatz iezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatara  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**ce consulting**  
empresarial  
ANA RAMOS MARTÍN

- Enpresa eta autonomoen aholkularitza
- Lursailen administrazioa
- Aholkularitza fiskal eta laborala

666 939 332  
aramos@ceconsulting.es  
www.ceconsulting.es

Etxaburua, 3. Betelu  
La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien

**Antsoñea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsoñea.com  
Uztegi (Araritz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUXBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZEN  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

## AMAVIR BETELUK "LOTURARIK GABEKO ZENTROEN" ZIURTAGIRIA JASO DU

Amavir Mutilva eta Amavir Oblatasekin batera Beteluko Amavir Betelu zaharren egoitzak "Loturarik gabeko zentroen" ziurtagiria aitortu dio CEOMAK (Espainiako Adinduen Erakundearen Konfederazioak). Amavir Betelun hiru urtez parte hartu dute Konfederazioak martxan jarritako lotura fisiko edo farmakologikorik gabeko programan. Espainia historikoki adinduen egoitzetan lotura mota ezberdinen erabilera gehien aplikatu den herrialdea izan da, ustez erortzeak ekidin eta segurtasun handiagoa ematen zuelakoan. Azkeneko urteetan ordea, irizpideak aldatzen hasiak dira eta horiek bizi kalitatean eta pertsona adinduen duintasunean sor ditzaketen kalteen gaineko kontzientziazio lan handia egin da..



## INBERTSIO BERRIEKIN HASI DUTE URTEA BETELUN

Laukoaren Gobernuak 113 milioi euro Departamentu ezberdinetako proiektuetara bideratzeko legea onartuko zuenaren berri eman zuen irailean. Udazkenean zehar, gaiak hautsak harrotu bazituen ere, 2017-2019ko Azpiegitura Planetik kanpo gelditu ziren proiektuak aurkezteko aukera izan zuten urteko azken hilabeteetan gure eskualdeko udal eta kontzejuek. Beteluko Udalaren kasuan, finantzieroki sostengarriak diren inbertsioetarako plan horri esker, hiru inbertsio berri eramanen ditu aurrera: San Pedro Kaleko sareak eta zoladura (hau da, plaza eta Mitxelazeneako hegotik errepidera irteten den kalean), Elostia iparraldean ere sareak eta zoladura berrituko da eta Errexilbordarako bidean asfaltoa botako da. Hiru lan horiek enpresa berari esleituak izan dira, Goizuetako Apezetxea Anaiak S.L. enpresari.

Bestetik, dagoeneko 2019rako aurrekontua onartu du Beteluko Udalak, 895.200 euroko aurrekontua. Horietatik 500.000 euro inguru inbertsioetara bideraturik egon da. Gainera, tasak eta zergak ere onartu dira. Uraren tasa eta kontribuzioa igo egingen dira, gainerakoak berdin mantenduz. Uraren tasa Kontsumo Prezio Indizearen arabera igoko da. Eta kontribuzioa berriz, azken sei urtetan aldaketarik aplikatu gabe eman eta gero, %5eko igoera izanen du. Kontribuzioa bi zatitan kobratuko da.

## ESKUALDERAKO BI GARBIGUNE BERRI IZANGO DITU MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK LEITZA ETA GOIZUETAN

Hemendik aurrera Mendialdea Mankomunitateak Etxeko hondakin berezietarako bi garbigune berri izango ditu, bata Leitza eta beste Goizuetan. Joan den hilean inauguratu ziren instalazio berriak. Arano, Areso, Goizuetan, Larraun, Leitza eta Lekunberriko biztanleei emango die zerbitzua.

Gune berria etxeko hondakinen aukeraketa eta metaketara dago zuzenduta, zehazki etxeko hondakin arris-kutsuetara, etxeetako tamaina txikiko hondakin etara, etxeetako tamaina handiko hondakin etara eta besteetarako.

Egindako inbertsioa 118.982,18 eurokoa izan da eta horren %73,5 Nafarroako Gobernuak finantzatu du Tokiko Inbertsioen Planaren bitartez, eta gainerako % 26,2a Hondakinen Partzuergoak.

Hondakin mota horiek dira zailtasun gehien sortzen dutenak kudeatzerako orduan. Horregatik estrategia batearua ezarriko da Foru Komunitateko garbigune guztietan. Langileak prestatuko eta sistema informatiko berritzaile bat ezarriko da, hondakinaren bizitza-zikloaren jarraipena egiteko aukera emango duena.



## LARRAUNDARREK INAUGURATU DUTE AZKENEAN EUREN UDALETXE BERRIA

Kostata, baina estreinatu dute dagoeneko Larraungo udaletxe berria. Joan den abenduaren 27an Gabari etxean elkartu ziren Larraungo Udaleko ordezkariak, kontzejuetako lehendakariak eta Larraungo sektore ezberdinetako langile eta ordezkariak. Isabel Elizalde, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilaria ere bertan izan zen eta instalazio berriak ikusi eta gero, Jose Javier Barberena, Larraungo egungo alkateari 1937an Carlos III erregeak larraundarrei aitortutako pribilegioen faksimile bat eta bailarako ezkutu bat eman zizkion opari.

Udaletxe zaharra Lekunberriko lurretan egonik, Larraun eta Lekunberriko banaketaz geroztik, legea behar bezala bete ezinak arazoak sortzen zituen, uda-

letxeek euren udal lurretan egon behar baitute koka-turik legez. Eta gainera, udaletxe zaharraren egoera nabarmen kaltetzen hasia zen azken urte hauetan.

Berritu berri den eraikina Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa bada ere, Larraungo Udalak lagapena beste 99 urtez luzatzea lortu du legegintzaldi honetan.

2011an hasi ziren berritze lanak eta aurreikusitakoa baino gehiago luzatu badira ere, eta egindako ahalegin ekonomikoak zein pertsonalak handiak izan badira ere, emaitzarekin pozik agertu zen Jose Javier Barberena. Gainera eraikin berriak zerbitzu berriak ekartzeko aukera eskainiko du, beste udalerrietan zentralizatutako zerbitzuetako teknikariak larraundarregana hurbilduz.



# Hariak ez du etenik

Belaunaldi baten bidelagun. Zein urte luzeak dortoken mendean... Mundua begiratzeko leiho izan zarete. Mila kilometrora, bihotzetik gertu sentitzeko tresna, alegia. Hemen, bigarren itzal bat bezain leial. Gauza txikien xarma horretan sinisten dugu. Gure ilusioa elikatu duzuen ilusionisten taldekoak izan zarete. Galdera ikur gehiegi eta nahikorik ez. Denak ez du balio.

*[Kafetegi barrura sartu, lekua hartu eta nire ingurura begiratzeko jarri naiz]*

Iraganetik, orainetik, etorkizunetik, zugandik, nigandik, guregandik, ikasten. Nik zerotik hasi nahi nuen.

Dena dekoratu bat dela onartuta.

Lotsaren aingura hondoratu. Hitzak bilatzen aurkitzen saiatzen nola edo hala adierazteko. Pintadek esan ohi dute paperek isiltzen dutena. Sentitzen dudana adierazi beharra. Ezin esan, ezin egin, ezin pentsa, ezin senti. Mendeak daramazkigu isilik eta zuen kantekek eman diote ahotsa esan gabe gelditu diren hitzei. Ez gaudela Erdi Aroan egutegiak dio. Loreak beltzak dira hemen eta alde zurratik dakigu zer usain duten. Badakizue hemen memoria ezabatzen digutela. Ni ez naiz aldatuko, esan zuen kameleoiak. Lider bat behar dugula dio. Hondarrezkoak direnez zuen gaztelu gotorrak, ideien olatu honek botako ditu.

Ongi etorri gure zirkura. Galderak aldatuz bakarrik lortuko dugu gakoa datekeen erantzuna. Baina gaur

ere egiak bere burua saldu du.

Ebidenteegia zuen "egia"



agian. Itxaropena agortzen. Betiko leloaren betiko leloa. Baina arren, hartu minutu bat. Jakin nahi nuke irabaztea, bakea, maitasuna zer den zuretzat. Ibili, erori eta altxatzearen oinarrizko legea.

*[Kamarero: kafe bat, hutsa ta doblea]*

Ezin asma lasterketa den, iduri du ihesaldi kolektibo bat. Ez dugu gehiago itxarongo. Biziraun. Libre. Mundutartasun karnetak banatzen. Baina gehienez ere zure Jainko atea naiz. Ta mila begirada triste. Zaude zu ez zaituztela ulertu nahi.

Zertan amets egin? Gaitz hau da bizirik naizela sinistarazten nauen gezur hilkor, eder, alu bakarra. Gerroa marrastu dut paper zati batean. Kantua, itsaso, bidea izan nahi dut. Bizi bat daramagu beste bizi baten bila. Isiltzen banaiz ez da hitzik ez dudalako. Baina isildu egingo naiz, demokraziaren izenean.

*[Kafe egin berria zainetan]*

Mezu hilak idazteko eskuak.

Elkarrekin sentitzeko eskuak. Arriskua txalotzeko eskuak. Mundu hau jorratzeko eskuak. Aski dela esateko: ukabilak. Hortzak kendu nahi zenizkigun baina hala ere, bestela ikasiguen kosk egiten. Norbaitek oroituko ditu etorkizunean.

Hasi eta bukatu egiten diren gauzen multzo horretan. Guztia eman ondoren geratzen den sentimendu hori. Azala aldatzeak egiten du sugea suge izatea. Helmuga? Ni haratago noa. Zerbait asmatuko dugu. Denbora da poligrafo bakarra. Jaio. Musika. Hil. Lekunberriko kantina. Ez dadila haria eten. Bego musika. Ez da musa hoberik.

Bitartean, oihu egiten dugu, arima urratu arte. Mila esker zuen lzena, lzana eta Ezina gu guztiokin elkarbanatzeagatik. Dramarik ez, arren, soilik agur. Ikusi arte!

luze

# Sorginak Araitzen

Kaixo irakurle. Bereziki ukitzen nauen gai bati buruz idatziko dizuet oraingoa, sorginei buruz. Txikitan beldurrezko istorioak kontatzen zizkidaten. Ez dakit sinesten nituen, baietz uste dut, entzun behintzat bai eta beldurra ematen zidatela ere bai... Akelarre pelikula grabatu zutenekoa gogoan dut, Uztegin, etxetik kilometro batetara, inguruko jendeak parte hartuz... Deabruaren eta sorginen sinesmena "benetakoa" izan zen nire haurtzaroan. Akelarre ikusi nuen gauean amets gaiztoak izan nituela gogoratu berri dut hau idaztean!

Harrigarria da nola gero inork ez zidan azaltzen sorginen istorioa gezurra zela, nola zen bidezkoa gezurra esatea ume bati... Uste dut horrelako zerbait pasatu zela bere garaian sorginekin gure inguruan. Boteretsuek indarra hartzen ari zen edo indarra zuen gizarte bat beldurtu eta kontrolatu nahi zutela eta makinaria guztia martxan jarri zuten sorginen kontua sinestiarazteko eta beldurra jendartean zabaltzeko. Bide batez, kristautasuna, balio zuen sinesmen bakar moduan jartzeko. Hori oso larria iruditzen zait, eta hor dago.

Garrantzitsua izan da niretzako umetako beldur horiek gogoratzea eta nire buruari deabruaren eta sorgin gaiztoen istorio haiek benetan gezurra zirela baieztatzea. Egin gabe banu bezala sentitzen dut. Indarra eman dit, beldurtu nindutenean kendu zidaten indarra. Ederra zait orain sorginen inguruan berriro lasai begiratu ahal izana, deabruaren bel-



durrik izan gabe eta Inkisizioaren beldurrik izan gabe. Errabia ere sentitzen dut, indarra, naizen moduan lasai izateko indarra, gezur guztien gainetik.

Momentu oso garrantzitsu bat egon zen niretzako honen inguruan, dokumentu baten bidez jakitea Araitzen, 1595ean, Zugarramurdin baino 15 urte lehenago, orduko jauntxoak, Anduezako kondeak, (Nafarroako konkistan Gaztelari lagundu zionak) 100 biztanle inguru zituen Intzako 17 pertsona bidali zituela Iruñeko kartzeletara sorginkeriaz akusatuta. Horietako 14 kartzelan hil ziren prozesuan, beste 2 errudun emanak izan ziren eta bat libre utzia. Errudunak azote bidez zigortuak izan ziren, eta bat erbeste-ratua. Bereziki esanguratsua izan zen haien izenak irakurtzea. Denak bildu ez ditudan arren, hona hemen batzuk:

Johanes de Zapataguindegui, 57 urte, Martín de Barazarte 40 urte, Johan Martiz de Perugorri, 60 urte,

María Miguel de Orexa, Catalina de Mercero 29 urte, Mari Arano, María de Peruxa y Arana, 20 urte, Miguela de Chorro, María Miguel de Orexa, 26 urte, María Johan de Chorro eta María Ernandoiz de Perugorri, 37 urte, Gracia de Zubieta, 60 urte;; María Andrés Peruxarena, 15 urte, Miguela eta María Johan de Chorro o Chorroa, ahizpak, 13 eta 9 urte.

Gauza beldurgarriak egiten zituzten akusaziopean, inongo frogarik gabe eta historia sinestezinetan oinarrituta, gauza beldurgarriak egin zizkieten, asko hil arte. Inguruan beldurra zabaldu, herriak hankaz gora jarri, umeak psikologikoki torturatu. 1613 aldera Inkisizioa bera izan zen esan zuena historia horiek sinestezinak zirela. Ordura arte, Euskal herrian, 5000 pertsona inguru izan omen ziren zalantzapean, hamarretik bederatzi emakumeak (gutxi gorabehera). Horietako 2000 akusatuak, ez dakit zenbat hilak. Gezur baten aitakian, boterearen pean. Hori dena sendatu gabe dagoela iruditzen zait.

Ez dut interes berezirik inori errua botatzeko, baina hau gure memorian orekatu gabe dagoela iruditzen zait. Nazkagarria iruditzen zait oraindik sorginen eta akelarreen istorioak kontatzea, gure arbasoak (eta gu geu) beldurtzeko eta hiltzeko balio izan zutenak. Memoria garbiketa bat behar dugu, emozio garbiketa bat. Araitzen hori egitea posible dela uste dut, gure erroekin, sinesmenekin eta inguruarekin harreman osasuntsua berreskuratzear gainera. Zer diozu zuk? Sortuko dugu?



Zabal

# Azpirotz-Lezaetako Galtzinlauek gordetzen zuenena...

*Leku-izenak eman zien pista Azpirotz eta Lezaeta artean sasi tartean estalirik aurkitu berri duten galtzinlabea topatzeko. Joxe Miguel Etxetxikia (Azpirotz-Lezaeta Kontzejuko Lehendakaria), Juanjo Zubieta (Iturraskarriko arduraduna) eta Javier Irigoien eta Juani Zabaletarekin (Ondare Kultur Taldeko kideak) izan gara.*



Kixulabea, galtzinlabea, karobia... Sinonimo asko ditu euskarak joan den mendera arte galtzina egiteko erabiltzen ziren harrizko labe handiak izenpetzeko. Gaur egun, horietako asko botata, erorita edo sasiak estalita daude, urteak baitira jada erabiltzen ez direla.

XX. mendean utzi zioten lan gogor hura egiteari Euskal Herriko azken galtzingileek. Eta lehenengo karobi zaharrak XVII. mende amaieran hasi ziren eraikitzen. Batez ere baserriaz bizi ziren orduko baserriarren beharrak asetzeko hasi ziren galtzina ekoizten. Familia handiak ziren, denentzako lur nahikorik ez eta baserri bakoitzak zituen barrutiei ahalik eta etekin handiena aterara behar zitzaizen, gari eta batez ere arto uzta ona jasotzeko. Horretarako, garrantzitsua zen lurra behar bezala ongarritzea eta galtzina ezin hobea zen lurreko intsektu kaltegarriak akabatu, lurra ongarritu, gozatu eta harrotzeko.

Galtzina desegindako kare-harria ( $\text{CaCO}_3$ ) da eta 900 gradu zentigradutara berotuz gero, desegin egiten da, kaltzio oxidoa lortuz ( $\text{CaO}$ ). Hau da, kare bizia, desinfektagarri gisa, intsektuak erretzeko edo ongarrri gisa erabiltzen zena. Eta horri ura gehituz gero, kare hila esan ohi zaio, bere propietateak ere aldatu egiten baitira, kontserbagarri bikaina bilakatuz, besteak beste. Eraikuntzan ere, kare hila, arearekin edo buztinarekin nahasita pareta egonkorrak eraikitzeko erabiltzen zen.



Baina, XX. mende hasieran, porlanezko paretak egiten hasi ziren. Industrializazioarekin batera, base-riak husten joan ziren eta larreetan abereak ugaritzen hasi ziren. Ondorioz, galtzinaren ekoizpena murrizten joan zen, ongarrri artifizialek eta etxeko paretak margotzeko produktu berriek azken galtzinlabeak ixtera bultzatu zituzten arte.

Larraungo historian ere kisugile edo galtzingile asko izan ziren, Bernardo Arrizurieta izan zen ibarreko azken galtzingileetako bat. Horiek jada, ez ditugu harrapatuko, baina guztiz desagertu gabeko galtzinlabe asko dauzkagu Larraunen. Horietako bat berriki Iturraskarriko kideek Azpirotz-Lezaetan garbitu eta azaleratu dutena.

### **Galtzinlabe honen berririk ba al zenuten?**

**Juanjo:** Ez. Iturraskarriko kideok uda honetan, Azpirotz eta Lezaeta artean orain dela zortzi urte inguru berreskuratu genituen bideak garbitzen ibili ginen. Azpirotz eta Lezaeta arteko zati horretan errepidera ateratzea baino beste aukerarik ez eta Joxe Migueli errepidearen ondoan sasiz beteta zegoen inguru hori garbitzeko proposamena egin genion. Horrela jendea arriskurik gabe bertatik oinez pasatzeko. Horretan genbiltzala atera zen gaia.

**Joxe Miguel:** *Leasa, Juan Ignacio* eta *Azarzulo* (azari-zulo) parajeen artean dago, baina honi juxtu *Galtzinlaue* deitu izan diogu beti. Antza garai



Ondare Kultur Taldearen asmoa galtzinlabeari sarreratxo bat eraikitzea da, jatorrian zuenaren antzekoa. Arg: Labrit.

hartan hartu izan zuen leku-izen hori. Guk sekulan ez dugu garbitu, zuloren bat zegoela bagenekien eta galtzinlabearen bat egon zitekeenaren susmoa bai, baina...

**Juanjo:** Dena sasiz eta harriz beteta zegoen. Baina Joxe Miguelek datu hori eman zigunean, ohartu ginen, pareta zati baten goialdea ere ikusten zela sasi tartean. Orain dela bi hilabete garbitu genuen. Lur, harri eta zabor gehiena eskuz eta aitzurren laguntzaz atera bagenuen ere, harri handi batzuk azaldu ziren eta makina baten laguntza ere behar izan genuen. Nabaritzen da urteetan zehar bete lana egin dela inguruan eta garai bateko errepidea beherago zegoela. Gezurra badirudi ere galtzinlabearen erdia baino gehiago ongi kontserbaturik dago. Lau metroko altuera eta lau metro inguruko diametroa du.

### **Nola egiten zen galtzina?**

**Juani:** Galtzinlabe gehienak errepede edo gurbideen ondoan eraikitzen ziren, inguruan harrobirik ez bazen, harriak gurdieekin bertara ekartzeko eta ondoren karea garraiatzeko. Erregai gisa inguruan bilatutako otea, lizar adaxkak, urritz adarrak, gaztaina eta bestelako egurra erabiltzen zuten.

**Juanjo:** Kixulabe ezberdinak izaten ziren, kasu honetan frantses labea da eta geruzaka tartekatzen zen erregaia eta harria. Lehenik erregaia jartzen zuten, gero gainean 15-20 kiloko kare-harriak eta ondoren berriz erregaia eta harria... Goiko zulotik harriak botatzen ziren eta beheko sarrerak galtzina ateratzeko eta hizea sartzeko erabiltzen zen. Astebeteko prozesua izaten zen, zortzi edo hamar egun behar izaten ziren dena egosi arte. Eta orduan kare-harria



Iturraskarriko kideek egin zituzten garbitze lanak. Arg: Juanjo Zubieta.

## EGIN ZURE EKARPENA:

Zure herrian dauden errota, galtzinlabe, teileria, perratoki edo bestelako ondareari buruzko oroitzapenak edo informazioak ba al duzu? Zure herrian halakoak non egon daitezkeenaren susmorik ba al duzu?

Jarri zaitetz harremanetan:  
[ondarekulturtalde@gmail.com](mailto:ondarekulturtalde@gmail.com)  
948 604 503

hauts bihurtzen zen. Egun horietan bertan egon behar zuten sua kontrolatuz, ikatz txondorrek egiten zen moduan.

**Joxe Miguel:** Leku hau oso egokia zen, atzean harrobia baitzuten.

## Noizkoa ote den jakin dezakegu?

**Juanjo:** Ez dugu datu hori. Baina badakigu 1705. urtean Lekunberrin jada galtzina ekoizten zela. Ordukoak dira gehienak. Ez dakigu ere noiz arte egon ote ziren martxan. Oraingoz ez dugu Larraunen galtzinlabearen bat martxan ezagutu duen herritarrik aurkitu. Zaharrenei galdezka ibili gara eta ez dute ezagutu. Ikatx txondorrak bai, baina karobirik ez.

**Juani:** Karea gauza askotarako era-

biltzen zen gure hartzaroan ere, nahiz eta bertan ekoiztua ez izan. Lurra arrotzeko, etxeko paretak margotzeko, ukuiuetan desinfektatzaile bezala, zuhaitz enborretako zomorroak hiltzeko, arrautzak kontserbatzeko...

## Hemendik aurrera zer egingo duzue galtzinlabe honekin?

**Juani:** Aldamenetako paretak pixka bat igo eta sarreratxo bat eraikitzea da gure asmoa. Ez dugu uste oso konplikatu izango denik. Baina Aranzadiko adituak eta Andoaingo Burdin Taldeko kideak bisitan etortzekoak dira eta eurek datu eta aholku gehiago emango dizkigute. Jendeak segurtasun oso sartu, ikusi eta ezagutzeko aukera izan dezala nahi dugu.

**Joxemiel:** Hau hemen zutik dagoela ikustea, poztekoa da, gure aurrekoek utzitakoak dira!

**Javier:** Bai, galtzinlabe honetan egin-beharreko egokitze lanak auzolanean egingo ditugu, Ondare Kultur Taldeko kideekin eta Azpirotz-Lezaetarako herritarrekin batera. Horretarako deialdia luzatuko da. Ondoren, denbora gutxian berreskuratu dugun gainerako ondarearekin bezala, hemen ere panel informatiboren bat eta seinaleak jarri nahiko genituzke. Eta behar duen balioa eman. Orain arte ez dugu jakin, dugun ondare aberatsa kontserbatzen eta ezagutarazten eta duen balioa eman behar zaio. Horretarako, interesgarria izango da ere leku hauei buruzko informazio bildu eta hedatzea.

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

German Lasarte  
ARBEONDO HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

## aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)

# Gurean ere izan da Olentzero!

Beste urte batez gure herrietatik ere pasa da Olentzero. Eguberri hauetan ere bere hitzorduari ez dio huts egin eta betiko ohiturari jarraituz, eskualdeko ikastetxeetan nahiz bertako zenbait herritan izan genuen bisitan. Egunez ezin izan zuten herri guztiak bisitatu, baina abenduaren 24ean bere lana egitekoa behar bezala bete zuten. Eta hurrengo goizean opariak jaso eta gero, Azkaraten, Gaintzan, Errazkinen eta Betelun allandoetara irten ziren gaztetxoak, koplak abestera.




**Lagunasesoría S.L.**  
**Fiskala**  
**Laborala**  
**Kontabilitatea**  
**Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
**BETELU**  
 948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**  
**ABOKATUAK**  
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## IRUÑEA

## Araizko Zaporeak, bailarako errealitatea eta bertan egiten ari den lana ezagutzera emanen du Iruñean

Idoia Zabaleta argazkilariak Araizko Zaporeak eta Araizko Udalaren laguntzarekin, Iruñeko autobus geltoki zaharrean argazki erakusketa eskainiko du. Ilbeltzaren 25etik otsailaren 9ra bitarte egonen da ikusgai, iaz Intzako belar kablearen jaiari ateratako hamasei argazki ederrez osatutako erakusketa. Horrekin batera, bailara Iruñean ezagutzeko ahalegina egingen du Araizko Zaporeak, horretarako panel informatiboak jarritz, non bertako errealitatea ez ezik, proiektuaren beraren nondik norakoak azalduko diren.

*"Bertako paisaiekin, lanbideekin eta bertako faunarekin ere argazki bilduma bat egin nahi dugu bailararen identitatea bistaratzeko bideo baten bidez. Bertan, Araitz bailaran lanean ari garen agroturismo, landetxe eta ekoizleen informazioa ere jarri nahi dugu. Horretarako ezinbestekoa da zure laguntza. Eskertuko dugu era digitalean duzun informazioa pasatzea, Logo digitalizatua, zure produktuaren informazio digitalizaturik, argazkiak, bai agroturismokoak eta baita inguruko paisaia eta bizilagunenak ere".*

## ARAITZ ETA BETELU

## Araitz-Beteluko Kultur Astearen balorazio baikorra egin dute antolatzaileek

Ekimenez betetako egitaraua antolatu zuten joan den hilean Araitz-Beteluko Kultur Asteko antolatzaileek eta urtero bezain arrakastatsua izan da. Hitzaldiak, kontzertua, haurrentzako antzerkia... jende dezente bildu zen ekitaldietan eta antolatzaileak gustura daude aurtengoak eman duenarekin. *"Euskaraz Bizi batzordeak ahalegin handia egin du jarduerak aurrera atera ahal izateko eta guztien gustukoak izateko. Erantzuna bikaina izan denez, eskerrak eman nahi dizkiegu antolatu ditugun saioetan parte hartu duten herritar guztiei, eta bereziki, horien antolaketan laguntza eskaini diguten horiei. Mila esker!"*

## LEKUNBERRI

## Urte amaiera mugitua Luzia Peña abeslariarentzat

Luzia Peña lekunberriarrak Xabierko Basilikan eta Auditorioan abestu zuten joan den abenduaren 3an, Orfeón Rural de la Riverarekin batera. "Hallelujah" eta San Francisco Javierri eskainitako "Nafarroaren Ereserkia" abestu zituen, Francisco Florren zuzendaritzapean. Emanaldiz betetako hilabetea izan du Luziak, izan ere, Nafarroako Ganbera Abesbatzarekin "Flautista de Hamelin" ikuskizunaren bi saio izan ziren Baluarten eta Barañaingo Auditorioan. Eta gurean ere abeslari gazte honen ahotsa entzuteko aukera izan genuen Euskaraldian.



## ETXATXO SAGARDOTEGIA (ALBIASU)

Urtarrilaren 19tik  
maiatzaren 5era bitarte irekita!

Ostiral gauetik  
igande eguerdira  
eta jai egunak.

EGIN ZURE ERRESERBA: 689 263 367

ESKUALDEA

# Eskualdeko 498 lagunek parte hartu dute Euskaraldian

Baikorra izan da ere gure eskualdean Euskaraldia ekimena antolatzen ibili diren kideen balorazioa. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte Euskal Herri osoan hizkuntz erabilera ohituretan eragiteko helburuarekin gauzatu zen Euskaraldia. Gure eskualde honetan ere, 498 lagunek parte hartu zuten. Horietatik 75 Belarriprest eta 423 Ahobizi. *“Euskaraldia gurean aurrera ateratzeko osatutako taldeetan, ekimenari harrera polita egin zaio eta herritarrek gogoz hartu dutela nabarmen ikusi da, horregatik oso pozik gaude egindako lanak emaitzak izan dituelako. Hamaika egun horietan gure erabilera ohituretan eragiteko lehenengo pausua eman dugu. Orain gure esku dago horri eustea. Animo euskarak beharrezkoa du eta!”*




# [ yonolotiro.es ]

## Zirkulatu ezazu.



yonolotiro.es. Zure berrerabilpen-webgunea

Sustatzailea



Laguntzailea



## Ibarberrik Kalitatearekiko Konpromisoa saria jaso du

Nafarroako 15 ikastetxe publikok kalitateari sariak jaso zituzten joan den abenduaren 12an Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eskutik. Tartean zen Lekunberri eta Larraungo Ibarberri Ikastetxea. Maria Solana kontseilariak "Nafarroako hezkuntza hobetzeko egunero lanean ari diren guztiei egindako erabateko ahalegina eta ikastetxeen gestio sistematik aldatu eta hala emaitza hobekuntza lortzeko emandako bultzada" nabarmendu eta eskertu zuen. Solanaren beraren eskutik jaso zuen Kalitatearekiko Konpromisoa saria Ibarberriko zuzendaria den Nerea Labayenek.



*Mailopeko irakurle agurgarriak, Ohore bat da zuekin guztiekin hitz hauek partekatzea, ohore bat izan den bezala, Ibarberri Eskolaren izenean, "Kalitatearekiko Konpromezua" duen ikastetxearen zigilua jasotzea. Ikuskaritzatik zuzendutako kanpo auditoretza bat gainditu eta Nafar Gobernuko kalitate sarean nahiz ikastetxean lan ugari egin ondoren eman digute abenduaren 12an Hezkuntza Kontseilariaren eta Hezkuntza Departamentuko Zuzendari Nagusiaren eskutik jaso genuen errekonozimendua.*

*Badira jada 8 urte, Begoña Olaetxea eta Mikel Goikoetxea borondatez kalitatea deitzen den honetan sartu zirela, benetan zerbaitetarako balioko ote zuen oso ongi jakin gabe. Proiektu ezezagun eta berri batean murgiltzeak sortzen dituen beldur eta kezka guztiekin hartutako erabaki ausartak, gure ikastetxean etengabeko hobekuntza sustatu eta intentziorik hoberenarekin, ordura arte oso ongi norentzat eta zertarako egiten genuen eguneroko lan hura sistematizatzerara eramán gaitu.*

*Gaur egun zuzentzen dudán taldea gure ikastetxea Ikas Komunitate batean eraldatzeko prozesuan ari da lanean buru-belarri. Hezkuntza Departamentuko "Proeducar" programa eta Ibarberriko klaustro nahiz komunitate osoari esker betetzen ari garen ametsa da. Geroz eta berekoiagoa den gizarte honen kontrako norabidean, ikasleen arrakastaz gain elkarlana, solidaritatea, aukera berdintasuna eta elkarriketa sustatzen dituen proiektu zirrarragarria da gurea.*

*Ikas komunitateak nolako eskola nahi dugun amestera eramán gaitu eta Ibarberrik amets egin du. Patio berri bat, baratza bat, desberdintasunik gabeko eskola bat, familiak aktiboki parte hartzen duten eskola edo kolorez betetako txirrista luzeak dituen eskola batez gain, etengabeko hobekuntza sustatzen duten proiektuak dituen kalitatezko eskola berritzaile batekin ere amets egin dugu. Ametsak betetzeko garaia da eta horretan gaude. Lanean jarraituko dugu gure eskola kalitatezko ikastetxea izan dadin, ez baitago kalitaterik gabeko eraldaketarik ezta eraldaketarik gabeko kalitaterik ere.*

*Aukera hau aprobetxatu nahiko nuke eskerrak emateko; eskerrak Ibarberriko familia eta ikasle guztiei, eta bereziki klaustroari eta azken urteetan gure ikastetxetik pasatu diren irakasleei, guztien lanari esker egunero hobetzen jarraitzen baitugu. Nire bi taldekideei, Begoña Olaetxeari eta Yurre Imazi, mila esker beti hor egoteagatik. Zuek gabe, ezinezkoa izango litzateke nire ametsak betetzea. Eta azkenik Mikel Goikoetxeari, sari hau, gurea bezain berea delako.*

*Mila esker bihotzez eta zorionak guztioi! Jarrai dezagun elkarrekin ametsak betetzen...*

Nerea Labayen - Ibarberri Eskolako Zuzendaria



## Bina gazta joan den denboraldian sartutako golen truke

Joan den hilean egin zuten Araithz eta Beteluko Oier Taldeko kideek urteroko afaria. Oier Sanjurjo, Osasunako jokalaria sei urte daramatza gure eskualdeko zaleekin otordu baten bueltan elkartzen. 25 lagun elkartu ziren Zigari Elkartearen eta jada tradizio bilakatu den moduan joan den denboraldian sartutako gol bakoitzeko gazta bat oparitu zioten. Aurten bina gazta eraman zituen Oierrek etxera. Denboraldi honetan beste bi gol sartuak ditu dagoeneko, beraz, datorren urtean ere gutxienez bi oparituko dizkiote. Lizarrako jokalaria orain gutxi berri du talde gorritxoarekin duen kontratua 2020. urtera arte.

## Araithz-Beteluko Krosean parte hartzeko izen-ematea zabalik

Datorren ilbeltzaren 13an izanen da Araithz-Beteluko XIV. Krosa. Antolakuntzatik ez dute aldaketarik aurreikusten. Ohi bezala, eguerdiko hamabietan emanen zaio hasiera proba nagusiarri. Korrikalariak Beteluko plazatik irtengo dira eta 7,7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Aurretik, goizeko 10:30etan, haurren lasterketa izanen da Araxes Ikastetxearen inguruan. 13.15etan, sari banaketa eginen da eta ondoren lunch-a eskainiko da Zigari Elkartearen. Izen-emateko epea dagoeneko zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian.

## Juanjo San Sebastian mendigoizalearen proiektzioa eskainiko du Ttutturre Kirol Elkarteak ilbeltzaren 19an

Ttutturre Kirol Elkarteak antolatuta, "El viaje" izeneko proiektzioa eskainiko du Juanjo San Sebastian, euskal mendigoizaleak, ilbeltzaren 19an, arratsaldeko 20:00etan, Lekunberriko udal aretoan. Zortzimilakoak egiten ospe handiko mendizalea izan zen 80 eta 90. hamarkadetan zehar eta bere ibilbidean bizitako hainbat esperientzia bildu ditu ikus-entzuzko lan honetan. Proiektzioaren ondoren, berarekin solasaldi txiki bat egiteko aukera izanen da.

Bestetik gogoratu, ilbeltzaren 27an aurreikusitako ateraldian, Gazteluberritik Asso Verál mendirainoko tartea egiten dutela Ttutturreko mendizaleek. Eta urtea behar bezala hasteko, jada ohitura bihurtu den otordua izanen dute otsailaren 3an Oderizko Juanluzenea Sagardotegian antolatutako bazkariarekin. Egun horretarako ere mendi-martxa txiki bat egitea aurreikusten da, Irañetatik, Agirira eta handik Oderitzeraino. Animatu eta parte hartu!



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

# Spot Onenaren Saria jaso du Hauda Komunikazio eta Marketing Agentziak

*Nafarroako Komunikazio Enpresen Elkartearen eskutik 2018ko Spot Onenaren Saria jaso zuen joan den azaroaren 28an Hauda Komunikazio eta Marketing Agentziak. Aner Ansorena lekunberriarrak zuzentzen duen agentziak Berdintasunean denok desberdin izeneko spot arrakastatsua izan zen zehazki saritutako lana. Nafarroako Gobernuak 2018an egin dituen kanpainen arrakastatsuen.*

## **Gaur egun, lau kide zabilzate Hauda agentziaren atzean... noiz eta zein helbururekin sortu zenuten?**

2016. urtean lehenengo pausoak eman bagenituen ere, ofizialki 2018ko otsailean sortu genuen. Nafarroan komunikazioa aldatzeko behar bat zegoela ikusten genuelako sortu genuen, batez ere komunikazio instituzionalaren arloan. Uste dugu Nafarroa anitza dela eta ez dagoela modu bakar bat lurralde osora iristeko eta marketing digitalaren bitartez posible dela publikoa segmentatu eta mezu bakar batekin biztanleria osora iristea. Erriberan bizi denari, Iruñerrikoa denari nahiz Pirinioetako bizilagunei iritsiko zaien komunikazio organikoa eta naturala lantzen dugu.

## **Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin hainbat lan egin dituzue dagoeneko...**

Bai. Berdintasunerako Institutuarekin zenbait kanpaina egin ditugu, LGTBI Diagnostikoa edo Emakume Politikarien Foroarena esaterako. Baina batez ere garrantzitsuak bi izan dira: joan den azaroan izan zen emakumeen kontrako indarkeriaren egunerako prestatutako *"Gauza aunitz dugu egiteko. 18 emakume erailak, azken 20 urtetan"* izeneko kanpaina alde batetik eta ekainaren 28an *"Berdintasunean denok desberdin"* mezua zabaltzeko egindako spota bestetik.

## **Azken hori bereziki arrakastatsua izan zen eta lan hori saritua izan zen joan den azaroan...**

Berdintasunerako Institututik jaso genuen eskaera. Nafarroako Gobernuak bere historia guztian aniztasunari buruz egiten zuen lehenengo kanpaina zen eta freskotasuna eta jendearengana iritsiko zen kanpaina bat nahi zuten. "Transbertsaltasunaren" eta "intersekzionaltasunaren" kontzeptuak atera ziren LGTBI kolektiboarekin egin genuen lanketan

*"Erakunde komunikazioa aldatzeko beharra zegoela ikusten genuen"*

eta hori izan genuen oinarri. Hauda, adibidez, ni transexuala izan naitenke, baina hori ez da nire ezaugarri bakarra, horrez gain, jatorra, lodia, kirolaria eta beste hainbat gauza naiz, "Ni naiz". Egia esan, bihotzetik egindako lan bat izan zen. Oso polita izan zen emaitza, baina baita prozesua ere. Kolektiboari berari erakutsi ondoren, argi ikusi genuen identifikaturik sentitu zirela eta asmatu egin genuela. Nolabait erakundeengatik ere babestuak eta ordezkatuak daudela ikusi zuten. Eta saria jaso izanagatik ere oso pozik gaude egindako lana aitortzen digulako eta batez ere gure agentziari ikusgarritasuna emateko baliagarria izan delako.

## **Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?**

Marka identitatea eta *branding* lantzen dugu, markak sortzeko. Adibidez, Eneko Ardoak markaren izena eta diseinua sortu dugu. Bideogintza ere egiten dugu, bideomarketinga, diseinu grafikoak, inpresioa, web-orrien diseinua... Eta bestalde, marketing digitala dago, organikoa zein ordaindutakoa. Hauda, kasu batzuetan estrategia komunikatibo bat sortzen dugu, interesatzen zaigun publiko horren arabera zein ordutegitan eta zein mezu eskaini, mezu horrek izan beharreko tonua etab. aztertuz. Edo ordaindutakoa denean, diru kopuru batekin kanpaina zehatz bat egiteko helburua betetzea.

## **Baina batez ere erakunde komunikazioan berezitzen ari zarete...**

Bai. Udal edo erakunde publiko bakoitzak dituen beharrak aztertu eta horren arabera komunikazioa



sortu eta kudeatzen dugu sare sozialetan nahiz web-orrietan. Adibidez, udal gehienek enpresa berarekin egiten dituzten euren atari digitalak, eredu bera erabiltzen da guztientzat. Eta guk uste dugu herri bakoitzak bere identitatea duela eta atari horietan ez dela hori komunikatzen. Gaur egun jendeari informazio gehiena sare sozialen bitartez iristen zaio. Eta udal edo erakundeek sare horiek behar bezala erabiltzen ikasi behar dute. Udalaren mezua modu organiko batean eskaini eta jendearengana iritsi.

### **Momentu honetan Zizur Nagusiko eta Lekunberriko udalen sare sozialak kudeatzen ari zarete...**

Bai. Zizur Nagusian abuztuan hasi ginen. 15.000 biztanleko herria da eta ez zekiten, kasu honetan Facebook-aren bitartez, nola iritsi biztanleengana. Eurek eskaintzen zuten edukiarekin jendeak zuen interakzioa %0,02koa zen, oso txikia eta 300 jarraitzaile baino ez zituzten. Zenbait hilabeteren ondoren, lortu dugu egunero sare sozial hori jarraitzen duten pertsona kopurua igotzea, eduki interesgarria modu egokian eskainiz eta jasotako iruzkin guztiak erantzunez. Ez gara alderdien sare sozialez ari, hori beraien lana da, ez dugu komunikazio partidistarik egiten. Udalean dauden alderdi guztiekin elkartzen gara eta bakoitzaren mezuak jaso ondoren, mezu bakar bat diseinatzen da, hizkuntza xume batean, herritarrengana iritsi dadin. Eta oso garrantzitsua da fee-



edback hori zaintzea. Nafarroako Gobernua esaterako, ez du mezu bakar bat ere erantzuten, ez Twitter-en eta ez Facebook-en. Eta mezuak sortzerako orduan ere ez ditu kontuan hartzen esaterako genero, adin eta ezberdintasun territorialak. Horrek zaildu egiten du helburu duzun komunikazio hori.

### **Eta gureak bezalako udal txiki hauetan?**

Udal txikietan ere beti saldu ohi da parte-hartzea, baina parte-hartzea jendearekin hitz egitetik hasten da. Uste dut jendeari hitz

*“Udal eta erakunde publikoen arabera komunikazioa kudeatzen dugu”*



*“Politikaren arrakastaren %90 komunikazioan dago”*

egiteari utzi eta jendearekin hitz egiten hasi beharko luketela. Nola izango dugu gure mezuen hartzaile izatea nahi dugu horiekin konexio bat, udal batek duen komunikazio tresna garrantzitsuena aktak diela uste badugu? Gardentasuna saldu ohi da, baina ez dakite egiten duten lan hori nola komunikatu. Politikaren arrakastaren gakoaren %90 komunikazioan dago. Ni udal bateko zinegotzia banaiz eta nahiz eta lan asko egiten ibili, herritar batek ez dugula ezer egiten esaten badit, arrazoi eman beharko diot. Ez delako egiten ari naizen horren berri ematen ari, edo ez zaiolako iristen, beraz nire estrategia komunikatiboa aldatu egin beharko dut.

**Webgune eta aplikazioen irisgarritasunean ere berezitu zarete...**

Bai zerbitzu hori eskaintzeko nazioarteko enpresa batekin gabiltza lanean. Biztanleriaren %20k desgaitasun motaren bat dauka, eta joan den irailean

indarrean sartu zen errege dekretu baten arabera, diru publikoarekin sortutako web-orri eta aplikazio guztiak AA motako irisgarritasun baldintzak bete behar dituzte. Hau da, tekla bat sakatu eta bertan dagoen testua automatikoki irakurriko dizu, kolore kontrastea eskaini behar du ikusmenean desgaitasunak dituztenentzat, beharrezkoa da webguneak blokeka antolatzea etab. Eta hemendik aurrera sortuko direnak ez ezik, jada diru publikoarekin sortutako horiek ere egokitu egin beharko dira legea bete dezaten. Horregatik lan asko dago egiteke esparru horretan.

**Aurki egoitza finkoa ere irekiko duzue...**

Bai. Otsailaren amaierarako aurreikusten dugu irekitzea gure egoitza Le-kunberriko Aralar kalean. Lan fluxua handitzearekin batera beharrezkoa ikusi dugu eta proiektzio aldetik ere interesgarria izango da.



**M. Angeles Urrizalki**  
**iragarkiak, berriak, eskelak...**  
**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**  
**948513056**  
**699179437**

**Atabal**  
 okindegia  
 Era askotako ogiak eta gozoak  
 Etxez etxe banatuko dugu  
 Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
 harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.  
 Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.  
 Antigua Kalea N°7  
 31890 BETELU  
 Telf: 948 51 30 88  
 maiteharategia@hotmail.com

# HEMEN APPAREN IZENA



- **Amilaren Urrezko Orrazia** Aplikazio honetan, euskal mitologiaren inguruko ipuinak aurkituko ditugu modu digital eta interaktiboan.
  - **Ttantto** Hainbat joko eta jarduerekin aurkituko aplikazioa da.
  - **Bikote Jolasa** Irudiekin bikoteak osatutako lantzeko jolasa dugu hau.
- Aurkeztutako aplikazio hauek Android zein IOS mugikorretzako daude eskuragarri.

Xanti Saigos

digitale  
smart  
bidali ikusi  
artekatu  
app  
download

# Uztegira deserritutako maistrak gogoan

Joan den abenduaren 9an bisita berezia izan zuten Uztegin. 1936an Iruñetik Uztegi deserritua izan zen Maria Camino Garcia Osacarren senitartekoak izan baitziren herria bisitatzeko.

Asko izan ziren Espainiako Gerra Zibila lehertu zenean, euren lantokietatik desterraturako maisu eta maistrak. Baita fusilatutakoak ere. Errepublikara garai irakasle aritu izanagatik bakarrik deserriratzeko zituzten.

Pare bat urtez egon zen Maria Camino Uztegin eta bere senitartekoen bisitak bizipen asko ekarri dizkie gogora, garai hartan bere ikasle izan zirenei. Horietako bat da Juan Joxe Goikoetxea Otamendi, Uztegi obra etxean jaio zen bera, 1925ean eta ongi gogoan ditu eskolako garai haiek.

*"Maria Caminoren bost seme-alabak eta beste zenbait senitarteko etorri ziren bisitan. Bera Iruñekoa zen eta 1936ean han zebilen irakasle, baina Uztegi deserritu zuten. Herrian eskuzabalik hartu genuen. Seme-alabek kontatu ziguten, berak maitasun handiz oroitzen zela Uztegin bizitako urteez. Eta guretzako ere oso maistra ona izan zen".*

Mutil koxkorra zen orduan Juan Joxe, baina aski ongi oroitzen da urte

***"Iruñekoa zen eta 1936ean han zebilen irakasle, baina Uztegi deserritu zuten"***

haietaz. Maria Camino bere ahizpa Concharekin eta honen bi alabekin, Maite eta Concharekin etorri zen Uztegi. Maria Camino Errepublikara garai irakaslea zen eta Concharen senarra berriz fusilatu egin zuten.

Herriko eskolaren gainean zegoen maistro-maistren etxebizitza

oso egoera kaxkarrean zegoen. Aurretik izan ziren irakasle gehienak Obra baserrian hartzen zituzten apopilo, Juan Joxeren etxean.

*"Gure etxeko logela batean gelditu ohi ziren, baina hura bere ahizparekin eta bi neskatoekin etorri zenez, ez ziren sartzen eta eskolan jarri ziren bizitzen. Baina beti gure etxean egoten ziren. Neskatoak, nire adintsukoak ziren eta etorri zirenean ez zegiten euskaraz, baina hilabete baino lehenago ikasi zuten biek. Nire aita harrituta egoten zen horren denbora gutxian ikasi zuten ikusita".*



**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro eskaintza bereziak

**Iñigo Garaioa MARGOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**AURRERA TABERNA**  
**ARALAR, 15**  
**948 60 47 24**

**TAXI SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** LI INCA ESTETIKAL HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



Garai hartan Uztegin, Araizko gainerako herrietan bezala, orain baino biztanle gehiago bizi ziren, euskara hutsean egiten zuten eta herri bakoitzak bere irakasle eta apaiza zuen. Maria Caminoren etorrerarekin guztiz aldatu zen Uztegioko eskolako martxa. Aurretik, Salvador Iraeta izan zuen irakasle Juan Joxek.

Salvador Gaintzan zebilen Tolosako Arsuaga maistrarekin ezkondu zen 1936ko uztailean eta eztei bidaietan zeudela Gerra Zibilak Madrilen harrapatu zituen. Bi urtez egon behar izan zuten bueltatu ezinik, bando frankistak Madril hartu zuen arte. Handik bueltatu zirenean, Salvador, Arakama eta Beldarrain ingurura bidali zuten desterraturik. Urte haietan bizitako atsekabeagatik behar baino gazteago hil zela dio Juan Joxek.

*“Salvador euskalduna zen, haren denboran Gernikako arbola... abesten genuen. Klaseko lezioak erdaraz ematen zituen, baina gainerako guztia euskaraz egiten genuen berarekin. Camino etorri zenean, klasea hasi aurretik Cara al sol... abestu eta ¡Arriba España! oihukatzen hasi ginen espainiar banderaren aurrean. Aldaketa handia izan zen”.*

Camino herritarren aldetik jasotako laguntzagatik eskerturik ze-

goen, baina Iruñera bueltatu nahi zuen, etxera. Horretarako beharrezkoa zuen jarrera egokia baieztatu eta Altxamendu Nazionalarekiko bere atxikimendua adieraziko zuen ziurtagiria lortzea. Eta hori herriko apaizak edo ibarreko alkateak baino ezin zuen sinatu.

*“Uztegin apez zebilen Don Vicente Goikoetxea Altolagirri esker lortu zuen ziurtagiria. Azkaratekoa zen, oso pertsona ona”.*

Maria Camino, Concha eta bere alabak Iruñera bueltatu ziren. Eta bere ondotik Oliteko Esperanza Lerga etorri zen Uztegiara, hura ere desterraturik eta gizona fusilatu berria. Denbora gutxiago egon omen zen hura.

Juan Joxe urte luzez egon da Maria Caminoren berririk gabe eta bere senitartekoen bisitak ezustekoan hartu zuen. Maria Caminok herriko apaizari esker ziurtagiria lortu eta bere bidearekin jarraitzeko aukera izan zuen. Aski ongi gorde zuen ziurtagiri hura, bere seme-alabek oraindik ere kontserbatzen dutena. Hasieran, bere bizitako pasarte hura bere seme-alabei kontatu ez bazien ere oso gogoan zuen Uztegi, eta urteak pasa ahala askotan hitz egiten omen zien urte haiei buruz, nahiz eta ez zen behin ere bueltatu.

***“Berak maitasun handiz oroitzen zituen Uztegin bizitako urteak eta guretzako ere oso maistra ona izan zen”***

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK. KOPA. BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea, 21. nabea  
31870 Lekunberri Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com

# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Isiki

*Horik, txurik, berdeak, gorrik, urdiñek; ezkile formakoak, goosti hostoak, arkuk, izar uxoak; haundik, ttikik, oso ttikik, izuarrik; eunotan zenbat kolore, zenbat argi!*

*Argi hoitako gehinak gañea presakako argik izaten dee. Lendik re ez gea ba erlejuen menpe bizi ta egoarritako argik gehio azeleratzen gattue batzutan: piztu itzali, itzali piztu, piztu itzali, itzali piztu; gorri, urdin, berde;*

*Baino nola eztee ba presaka ibiliko argitxook, urtean hileete bateako funtzioa due ta. Hileete'at been eartasune eakusteko, eunik motzenak, eunik ilunenak argitzeko. Urtean hileete'at topera ta gañeako urte osoa itzalita, mutu.*

*Ta gauze bea pasatzea kamaran fokoan argik iraun duen bitartean piztuta eon deen Ahobizi eta Belarriprest hoikin denakin. Eo ahobero eta belarri-motz hoikin esan beharko giñuke? Seittun, hamar bat eunean, fundittu deen argitxo hoik. Barka, hainbeste foko ta argikin itsutu ittea bat.*

*Fokoak emateai uzten dien bakoitzean hizkuntza bat galtze omen da mundun. Ta galtzen den hizkuntza bakoitzeko izar bat itzaltze omen da zero zaal hortan. Baño alrebes re pasatze ote'a? Ibiltzean hitz bakoitzeko pizte ote'a izarrik?*

*Izarrik eztakit, beño apustu ingo nuke oaingoan baietz norbatti irripar lotsatiet isiki!!*

*Isiki. Egoarritako argiet balitz horie ikusiko giñuke; horie eta oso dizdiratsue. Isiki! Izuarri politte iruittu zitzaitten, oain gutxi, aurrenekoz aittu nunean: "Baraarren isiki esaten due".*

*Isiki aittu ta begirada piztu; hoixe baita isiki: piztu. Ta behin hitze piztuta duula, piztuta daula ohartu geala, ea eztuun hilleetearrenea itzaltzen uzten, eguarritako argik bezala. Eon gattezen gure argi ttiki hoik, oharkabean pasatzen zaizkiun hitz xume hoik ikasteko beti belarri prest!!*

*Hitz berri on ta aho bizi!*

## ILBELTZA

**13 | ARAITZ-BETELU:**

Araitz-Beteluko XIV. Krosa.

**19 | LEKUNBERRI:**

Juanjo Sansebastianen "El viaje" ikus-entzunezkoaren proiektzioa, Lekunberriko udal aretoan, arratsaldeko 20:00etan..

**25 | IRUÑEA:**

Iruñeko Autobus Geltoki Zaharrearain Arizko Zaporearen erakusketa ikusgai, otsailaren 9a arte.

**27 | LEKUNBERRI:**

Ttuturreko mendizaleen ateraldia: Gazteluberri-Asoso Veral.

## OTSAILA

**3 | ODERITZ:**

Ttuturrek antolatutako bazkaria Juanluzenea Sagardotegian.

**4 | ESKUALDEA:**

Santa Ageda bezpera.

## SALGAI

- Basoan hazitako txerri gizenak salgai. Harremanetarako: 663 486 255.

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.



**ekin**  
rotulacion  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es





2018

# OLENTZERO

